

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBON LA PEÑA KIROLDEGIAREN ETA APARKALEKUAREN OBRAREN ESLEIPENA, EXEKUZIOA, HARRERA ETA LIKIDAZIOARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Eusko Legebiltzarrak hala eskatuta, Bilboko La Peña kiroldegiaren eta aparkalekuaren obraren esleipena, exekuzioa, harrera eta likidazioari buruzko fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena 2009ko irailaren 22an Osoko kideen gehiengoarekin onetsi da, hiruk boto partikularrak egin badituzte ere.

Lanaren mamia Bilbao Kirolak Toki Erakunde Autonomoak gauzatutako proiektuaren erredakzioa eta obra zuzendaritzaren kontratazio espedienteak aztertzea izan da, 2002ko maiatzaren 8an esleitu eta gerora, 2003ko irailaren 11n aldatu zirenak; baita, kiroldegia eraikitzeko lanen eta kiroldegi azpian egoiliarrentzat aparkalekua eraiki eta ustiatzeko lanen emakidaren espedienteak ere, 2004ko martxoaren 24an esleitu zirenak, kasu bakoitzean ezargarria den araudia bete dela eta bi kontratuak exekutatzetik eratorritako alderdi ekonomikoak egiaztatuz.

Proiektuaren erredakzio eta obra zuzendaritzari dagokionez, Epaitegiak Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratuko (APKLTB) hainbat artikulua ez direla bete azaleratu du, izan ere, kontratazio espedientean ez baita jaso Administrazio Klausula Partikularren Pleguei buruzko txosten juridikoa, ez kreditu egoki eta behar hainbatekoa badagoelako txostena, Artekaritzaren alde aurreko fiskalizazioa, ez eta, kontratuaren esleipena argitaratu ez izana, besteak beste.

Berebat, proiektuan egoiliarrentzat ibilgailuen aparkalekua barne hartzeak esleitutako zenbatekoa % 89 gehitzea ekarri zuen ondoren egindako aldaketa bidez; honek lehia libre eta aukeren berdintasun printzipioak urratu ditu eta

gainera ez da kostu hau obra publikoa emateko kontratuan finkatutako partzela bakoitzeko prezioan jasanarazi.

Kiroldegia eraikitzeari dagokionez, Epaitegiak adierazi du ez dela espedientean proiektuaren gainbegiraketarik jaso eta horrek neurketazko akatsak zuzendu ahal izateko aurrekontua gehitzea eragin zuela; berebat, ez dago proiektua hirigintzako araudiarekiko ados edo ez-ados egoteari buruzko obra lizentziarik, aldez aurretik Artekartzak ez du fiskalizatu eta esleipena ez da argitara eman. Bestalde, exekuzioari dagokionez, 10 aldaketa egin ziren eta horiek esleipen zenbatekoa % 18 gehitu arazi zuten; exekuzio epea berriz 3 aldiz luzatu zen eta % 50 luzeago izatea ekarri zuen.

Aparkalekuko lanen eraikuntza eta ustiaketaren emakidari dagokionez, Bilbao Kirolak erakundeak esku hartzeko babes juridikorik ez zegoela azpimarratu da, izan ere, aparkaleku gaietan eskumena Udalarena baita. Bestetik, ez da jaso bideragarritasun txostena eta lehiaketa egin den datan, eraikuntza Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko hirigintzako aurreikuspenak alde batera utzita gauzatu zen.

Udalak 2007an eta 2008an gauzatutako 77 aparkalekuren bahiketa dela eta, esleipen hartzaileak eskualdatu gabeko aparkalekuen erosketa arautzen duen klausula euskarrituko duen txosten edo justifikazio ekonomikorik eza azpimarratu da.

Azkenik, Txostenari hainbat Eranskin argigarri ez ezik, hiru boto partikularrak oso-
osorik ere txertatu zaizkio.